

Errepideko langileak

Errepidea konpontzen ari dira langileak.
Mendi zati bat jausi da, lurra zulatua dago
harriak kendu behar dituzte bidetik
asfaltoa berregin.
Zeruak, hodeiak eman dizkie maileguan
lurra egosten hasi arte eguzki galdatan.
Autoentzako karril bat moztuta dago.
Stop agintzen die langile izerdituak
autoetako gidari balaztatuei.
Pasa agintzen die gero.
Sekula ez du hainbeste botere izan eskuan
Stop, stop, stop.

Kalima egin da.
beste planeta bateko gizakia da errepideko langilea
izerdi beltza aurpegian
loihartzekoa soinean
seguru sentitzen da bide erdian
gomazko botak alkitranean txiklea bezala
Stop, stop, stop agintzen die
langile izerdituak auto ilarei.
Sekula ez du hainbeste botere izan.
Bolanteari lotuta ikusi du gidari bat,
urduri begiratzen dio bere aginduei zain.
Bera da emaztea eta bi umeekin.
Kalimak irenstea desio izan du.
Paso eman behar dut, esan dio walkie-talkietik bestaldeko lankideari
Ezetz entzun du bestaldetik
Stop, stop, stop
Asfaltoa botatzen hasi behar dira
bere autoa dagoen lekuan.
Paso eman nahi du eta ezin eskuak bolantetik mugitu.
Zapalgailua sentitu du bere gainean.

**FRIEDRICH HÖLDERLIN (1770-1843): OLERKIAK
(ITZULTZAILE: LUIS AROSTEGI)**

Die Heimath.

<Zweite Fassung>

Froh kehrt der Schiffer heim an den stillen Strom,
 Von Inseln fernher, wenn er geerndtet hat;
 So käm' auch ich zur Heimath, hätt' ich
 Güter so viele, wie Laid, geerndtet.

Ihr theuern Ufer, die mich erzogen einst,
 Stillt ihr der Liebe Leiden, versprecht ihr mir,
 Ihr Wälder meiner Jugend, wenn ich
 Komme, die Ruhe noch einmal wieder?

Am kühlen Bache, wo ich der Wellen Spiel,
 Am Strome, wo ich gleiten die Schiffe sah,
 Dort bin ich bald; euch traute Berge,
 Die mich behüteten einst, der Heimath

Verehrte sichre Grenzen, der Mutter Haus
 Und liebender Geschwister Umarmungen
 Begrüß' ich bald und ihr umschließt mich,
 Daß, wie in Banden, das Herz mir heile,

Ihr treugebliebenen! aber ich weiß, ich weiß
 Der Liebe Laid, diß heilet so bald mir nicht,
 Diß singt kein Wiegensang, den tröstend
 Sterbliche singen, mir aus dem Busen.

Denn sie, die uns das himmlische Feuer leihn,
 Die Götter schenken heiliges Laid uns auch,
 Drum bleibe diß. Ein Sohn der Erde
 Schein' ich; zu lieben gemacht, zu leiden.

Jaioterra

<Bigarren egikera>

Pozik etxeratzen da ontzilaria ibai barera,
urrineko ugarteetatik, irabaztea izandakoan;
olan etorriko nintzake ni be errira,
samin aina ondasun batu izan banitu.

Urbazter maiteok, bein azi ninduzuenok,
baretzen dozue maitasun mina, eskeintzen
deustazue, nire gaztaroko basook,
etortean, oindino barriro bakea?

Uinen jokoa ikusi neban lats otzean,
ontziak joaten ikusi nituan ibaian,
an izango naz laster; mendi minok,
bein gorde ninduzuenok, jaioterriko

muga ziur, gurtuak, amaren etxea
eta anai-arreba maiteen besarkatzeak,
laster zaituet agurtuko eta zuek ni estutuko,
lokarrietan bezala, biotza dakidan osatu,

leial geldituok!, baina badakit jakin,
maitasun mina ez jat, ez, ain laster osatuko,
au ez deust ilkorrak pozteko abestu oi daben
seaska kantuak bularretik kenduko.

Su zerutarra emoten deuskuen eurak,
jainkoak egiten deuskue min sakratuaren doea be,
beraz gelditu bedi au. Lurraren seme
agiri naz; maitatzeko egina, sufritzeko.

Die Liebe

Wenn ihr Freunde vergeßt, wenn ihr die Euern all
 O ihr Dankbaren, sie, euere Dichter schmäht,
 Gott vergeb' es, doch ehret
 Nur die Seele der Liebenden.

Denn o saget, wo lebt menschliches Leben sonst
 Da die knechtische jezt alles, die Sorge zwingt?
 Darum wandelt der Gott auch
 Sorglos über dem Haupt uns längst.

Doch, wie immer das Jahr kalt und gesanglos ist
 Zur beschiedenen Zeit, aber aus weißem Feld
 Grüne Halme doch sprossen
 Und ein einsamer Vogel singt,

Und sich mälig der Wald dehnet, der Strom sich regt,
 Schon die mildere Luft leise von Mittag weht
 Zur erlesenen Stunde,
 So ein Zeichen der schönere Zeit,

Die wir glauben, erwächst einziggenügsam noch,
 Einzig edel und fromm über dem ehernen,
 Wilden Boden die Liebe,
 Gottes Tochter, von ihm allein.

Sei geseegnet, o sei, himmlische Pflanze, mir
 Mit Gesange gepflegt, wenn des ätherischen
 Nektars Kräfte dich nähren,
 Und der schöpfrische Stral dich reift.

Wachs und werde zum Wald! eine beseeltere,
 Vollentblühende Welt! Sprache der Liebenden
 Sei die Sprache des Landes,
 Ihre Seele der Laut des Volks!

Maitasuna

Adiskideak aaztuten badozuez, zeuenak danak,
oi esker onekook, zeuen olerkariak iraintzen badozuez,
parkatu bei Jainkoak, baina aintzat artu
maitaleen arimea beintzat.

Oi esan, non bizi da bestela giza bizia,
jopuak, ardureak, orain dana beartzen dau-eta?
Orregaitik dabilkigu Jainkoa be
ardurage buruen ganetik aspaldi.

Alan be, urtea otz eta abesti gabea dan lez
doakion aroan, baina zelai zuritik
bedar-izpi berdeak sortzen diran lez,
eta txori bakarti batek abestu dagi,

eta basoa apurka edatu egiten, ibaia mugitu,
eguerdiko aize biguna leun dabil,
ordu aukeratuan,
olan aldi ederragoaren zantzu bat,

guk sinisten doguna, bakar-eratsu azten da,
bakar uren eta zintzo lur astun
zakarrean, maitasuna,
jainkoaren alaba, soilik aregandikoa.

Bedeinkatua izan zaitez, oi izan zakidaz, zeruko landara,
kantuz zaindua, eter-en
nektar indarrak janaritzen zaituenean,
eta errainu sortzaileak ontzen.

Azi eta oiandu zaitez!, mundu
arimadun dana-lore!, maitaleen izkera
izan bedi lurraldeko izkera,
areen arima erriaren abotsa!

Lebenslauf

<Zweite Fassung>

Größers wolltest auch du, aber die Liebe zwingt
 All uns nieder, das Laid beuget gewaltiger,
 Doch es kehret umsonst nicht
 Unser Bogen, woher er kommt.

Aufwärts oder hinab! herrschet in heil'ger Nacht,
 Wo die stumme Natur werdende Tage sinnt,
 Herrscht im schiefesten Orkus
 Nicht ein Grades, ein Recht noch auch?

Diß erfuhr ich. Denn nie, sterblichen Meistern gleich,
 Habt ihr Himmlischen, ihr Alleserhaltenden,
 Daß ich wüßte, mit Vorsicht,
 Mich des ebenen Pfads geführt.

Alles prüfe der Mensch, sagen die Himmlischen,
 Daß er, kräftig genährt, danken für Alles lern',
 Und verstehe die Freiheit,
 Aufzubrechen, wohin er will.

Der Abschied

Trennen wollten wir uns? wähten es gut und klug?
 Da wirs thaten, warum schrökte, wie Mord, die That?
 Ach! wir kennen uns wenig,
 Denn es waltet ein Gott in uns.

Den verrathen? ach ihn, welcher uns alles erst,
 Sinn und Leben erschuff, ihn, den beseelenden
 Schuzgott unserer Liebe,
 Diß, diß Eine vermag ich nicht.

Bizitza bidea

<Bigarren egikera>

Andiagoa nai zenduan zuk be, baina maitasunik beera
bultzatzen gaitu danok, aaltsuago dau makurtzen oinazeak,
alan be alperrik ez da itzultzen
gure arkua datorrenra.

Gora zein beera!, ez dau ba agintzen gau sakratuan,
izadi isilak etorteko egunak asmatzen dituanean,
ez dau Orko okerreanean bertan
artezak, zuzenbideak oindino be agintzen?

Au ikasi neban. Sekula ez nozue-ta, maixu ilkorrak lez,
zerutarrok, danaren eusleok,
nik nenkiala, zuurtziaz,
bide lauz ni eroan.

Dasta bei dana gizakiak, dinoe zerutarrek,
indartsu janariturik, danagaitik eskertzen ikasi daian,
eta askatasuna ulertu
nai dauanera bidea urratzeko.

Agurra

Banandu nai genduan?, ondo eta zentzuzko iritzi geuntson?
Egindakoan, zergaitik ikaratu ginduzan, erailketak lez, egiteak?
Ai!, gitxi dogu geure burua ezagutzen,
jainko batek agintzen dau gudan eta.

A saldu?, ai, leenengo dana,
zentzuna eta bizia sortu euskuna, a, gure maitasunaren
jainko jagolea, arima-emoilea,
ori ez, orixe ezin daiket nik.

Aber anderen Fehl denket der Weltsinn sich,
 Andern ehernen Dienst übt er und anders Recht,
 Und es listet die Seele
 Tag für Tag der Gebrauch uns ab.

Wohl! ich wußt' es zuvor. Seit die gewurzelte
 Ungestalte die Furcht Götter und Menschen trennt,
 Muß, mit Blut sie zu sühnen,
 Muß der Liebenden Herz vergehn.

Laß mich schweigen! o laß nimmer von nun an mich
 Dieses Tödliche sehn, daß ich im Frieden doch
 Hin ins Einsame ziehe,
 Und noch unser der Abschied sei!

Reich die Schaale mir selbst, daß ich des rettenden
 Heiligen Giftes genug, daß ich des Lethetranks
 Mit dir trinke, daß alles
 Haß und Liebe vergessen sei!

Hingehn will ich. Vielleicht seh' ich in langer Zeit
 Diotima! dich hier. Aber verblutet ist
 Dann das Wünschen und friedlich
 Gleich den Seeligen, fremde gehn

Wir umher, ein Gespräch führet uns ab und auf,
 Sinnend, zögernd, doch igt mahnt die Vergessenen
 Hier die Stelle des Abschieds,
 Es erwarmet ein Herz in uns,

Stauend seh' ich dich an, Stimmen und süßen Sang,
 Wie aus voriger Zeit hör' ich und Saitenspiel,
 Und die Lilie duftet
 Golden über dem Bach uns auf.

Baina beste utsik asmatzen dau munduko zentzunak,
 beste brontzezko zerbitzio bat darabil eta beste zuzenbide bat,
 eta arimea daroasku maltzur
 egunez egun oitureak.

Bai!, leendik nekian ori. Erroturiko
 erabakoak, bildurrak, jainkoak eta gizakiak banatzen dituanetik,
 areen bakea odolaz ordaintzeko,
 maitaleen biotzak bear dau suntsitu.

Isildu naiten!, oi, ez dagidan emendik aurrera inoz
 eriotzgarri ori ikusi, bakean
 joan naiten bakartadera,
 eta oindino geurea izan daiten agurra!

Emoidazu edontzia zeuk, nik eden salbagarririk
 naiko, Lete edaritik zeugaz
 edan dagidan,
 gorroto eta maitasun guztia aaztua izan daiten!

Banoa. Bearbada luzarora
 ikusiko zaitut, Diotima, emen. Baina odolgabe
 izango orduan guraria eta baketsu
 zorionsuen antzera, arrotz ibiliko gara

inguruan, alkarrizketak eroango gaitu beera ta gora,
 gogoetan, zalantzan, baina aaztukorrei orduan
 agur leku onek gogoraziko deutse,
 biotz bat berotuko da guban,

arriturik begituko deusut, abotsak eta kantu gozoa,
 leengo alditik lez entzungo ditut eta ari-doinua,
 eta liliak usaina emongo deusku
 urrezko latsaren ganean.

Diotima

<Dritte Fassung>

Du schweigst und duldest, denn sie verstehn dich nicht,
 Du edles Leben! siehest zur Erd' und schweigst
 Am schönen Tag, denn ach! umsonst nur
 Suchst du die Deinen im Sonnenlichte,

Die Königlichen, welche, wie Brüder doch,
 Wie eines Hains gesellige Gipfel sonst
 Der Lieb' und Heimath sich und ihres
 Immerumfangenden Himmels freuten,

Des Ursprungs noch in tönender Brust gedenk;
 Die Dankbarn, sie, sie mein' ich, die einzigreu
 Bis in den Tartarus hinab die Freude
 Brachten, die Freien, die Göttermenschen,

Die zärtlichgroßen Seelen, die nimmer sind;
 Denn sie beweint, so lange das Trauerjahr
 Schon dauert, von den vor'gen Sternen
 Täglich gemahnet, das Herz noch immer

Und diese Todtenklage, sie ruht nicht aus.
 Die Zeit doch heilt. Die Himmlischen sind jezt stark,
 Sind schnell. Nimmt denn nicht schon ihr altes
 Freudiges Recht die Natur sich wieder?

Sieh! eh noch unser Hügel, o Liebe, sinkt,
 Geschiehts, und ja! noch sicher mein sterblich Lied
 Den Tag, der, Diotima! nächst den
 Göttern mit Helden dich nennt, und dir gleicht.

Diotima

<Irugarren egikera>

Isilik zagoz eta jasaten, ez zaitue-ta ulertzen,
bizi bikain ori !, lurrera begiratzen dozu isilik
egun ederrean, ai!, alperrik baino ez
dituzu bilatzen zeureak eguzki-argi pean,

erregezkoak, baina anaiak lez,
zugaztiko adarburu lagunkoiak lez, bein
maitasunaz eta aberriaz eta euren
zeru beti-besarkatzaileaz pozten ziranak,

jatorria oindino bular ozenean gogoratzen;
esker onekoak, areek, areek ditut gogoan, berebiziko zintzoak,
Tartaro-raino poztasuna
ekarri ebenak, askeak, jainko-gizakiak,

arima samur-andiak, geiago ez diranak;
areekaitik dagi negar, ain luzaro dolu-urteak
irauten dauala, leengo izarrak
egunero gogorazle, biotzak oindino be,

eta il erosta onek ez dau atsedenic.
Baina aldia laster doa. Zerukoak indartsuak dira orain,
bizkorrrak dira. Ez dau ba bere antzinako
eskubide pozgarria eskuan barriro artzen izadiak?

Begitu!, gure muinoa, oi maite, jausi baino leenago,
jazoko da ori, eta bai!, oindino ikusiko nire kantu ilkorrak
eguna, Diotima!, jainkoen urrengo
gizurenakaz izendatzen zaituana, eta bardintzen.